

Auzoak ofizialtzeko proposamena laster



Donostian, ofizialki, auzorik ez dago. Duela bi urte banaketa ofiziala egiteko asmoa azaldu zuen Udalak eta azken hilabeetan azterketa honetan aurrera egin da. Hala, zinegotzi arduradunaren arabera, ekaineko edo uztailerako mahai gainean egon daiteke lehen proposamena.

Aitziber Iartzza

Gros, Egia, Parte Zaharra, Intxaurrondo, Antigua... Begi bistakoa da Donostian auzoak egon badaudela. Baina, ofizialki, Donostiak ez du auzorik. Ondorioz, auzo bat non hasten den eta non bukatzen den ez dago argi; halaber, azken urteetan eraikitako etxe gune berriak berezko auzoak edo beste auzo bateko zatiak ote diren ere ez dago jakiterik. Hau dela eta, 2000ko maiatzean Herritarren Partaidetza eta Auzo Sailak auzo ofi-

zialak zehazteko lanean hasiko zela iragarri zuen.

Prozesua nahiko mantso joan da, baina azkenaldian azkartu egin da. Hala, Enrique Ramos Herritarren Partaidetza eta Auzo Saileko zinegotzi sozialistak gaiari buruzko lehen proposamena uda aurretik, ekainean edo uztailan, aurkeztea espero du.

Enrique Ramosek azaldu digunez, auzo-etako banaketa egiteko orduan bi faktore hartu dira kontuan. Batetik, Udalaren beraren egituraketa eta bestetik, herritarren pentsaera eta sentimenduak. Udal

Auzoak mugatzeko proposamena udan aurkeztea espero da

barruko egituraketari dagokionez, gai honen inguruan ardura gehien Hirigintza Sailak azaldu zuela esan digu Ramosek. Hala, jada banaketa moduko bat zehaztu dutela eta Plan Orokorren berrazterketaren baitan ere sartuko dela dio.

Herritarren sentimenduak eta pentsamoldea jasotzeko, berriz, pertsona bat izan dute horretan lanean lau hilabetez. Teknikari bat jarri zuten horretarako, eta bere lana auzoetako eragileekin biltzea izan da gaiaz zein iritziz duten jakiteko. IRUTXULO atal honetako teknikariek inharremanetan jartzen saiatu da, baina denborarik ez dutela argudiatuz, ez digute gaiari buruzko azalpenik eman. Hala ere, Ramosek gutxi gorabehera irizpideak zehaztuta dituztela adierazi digu. Guztira 15-17 auzo egongo direla jakinarazi du Ramosek. Auzo kopuruaren aldaketa zenbait auzoren inguruan hartzen den erabakiaren baitakoa da. Izan ere, Ramosek azaldu digunez, "ez dago oso argi Intxaurrondo Berria eta Intxaurrondo Zaharra banatu behar ote ditugun, edota Loiolako Ibaiertza auzo berri gisa hartuko dugun edo Loiola barruan sartuko den".

Kale kantoitik

Prozedura erabaki zain

Enrique Ramos zinegotziak azaldu duen arabera, auzoaren banaketa egiteko proposamena uda aurretik egon daiteke prest. Hala, udan honetan proposamen hori zehazten ari dira. Baina, horrez gain, auzoak ezartzeko prozedurak zer nolako izan behar duen ere argitzeke dago. Udal zerbi-

tzuei eskatu dute gaita aztertze-ko, alegia, erabakia Udaltzaren osoko bilkurak hartu behar ote duen edo batzordeen bidez onartu daitekeen argitzeke. Horiaz, behin proposamena eskuratu eta onartu dute eta prozedura zehazten denean, auzo ofizialak ezartzeko planak aurrera egingo du.

